

BARNE MUGIKORTASUNERAKO PROZEDURA ARAUTZEKO JARRAIBIDEAK,
IKASTETXE BATEAN EDO NAFARROAKO ESKUALDE BATEAN ARI DIREN HEZKUNTZA
DEPARTAMENTUAREN ZERBITZUKO ZAINZAILE FUNTZIONARIOEI DAGOZKIENAK

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 3ko 1447/2018 Ebazpenean ezarritakoaren arabera, 2020-2021 ikasturterako ikastetxe batean edo Nafarroako eskualde batean ari diren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko zaintzaileen urteko mugikortasun prozedura egin beharra dago.

PARTE-HARTZAILEAK

Mugikortasun prozedura honetan parte hartuko dute hauek:

- Zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean beharra osoki edo zati batean desagertzea egokitu zaien zaintzaileak.
- Destinoa eskualdean izanik, eskualde horretan ikastetxea aldatzeko beren borondatez parte hartzea eskatu duten zaintzaileak. Borondatezko mugikortasuna eskaturik, funtzionarioa dagoen lanpostua urteko mugikortasunean eskainiko da, soil-soilik lanpostuaren titularrak destino berri bat lortzen badu.

PROZEDURA

Urteko mugikortasunean, destinoa aukeratzeko unean, eskualde bakoitzaren barnean lehentasuna izanen dute beharra desagertzeagatik edo ordutegi nahikoa ez izateagatik tokiz mugitu behar duten zaintzaileek, beren borondatez aldatzea eskatu dutenen aurretik.

Lehenik eta behin, Iruña, Tuter, Lizarra, Tafalla, Irurtzun, Elizondo eta Irunberriko eskualdeetan destinoa duten funtzionarioei dagozkien destinoak adjudikatuko dira eta, azkenik, Nafarroako eskualdean destinoa duten funtzionarioenak.

Iruña, Tuter, Lizarra, Tafalla, Irurtzun, Elizondo edo Irunberriko eskualdeetan destinoa izan eta, beren atxikipen eskualdean behar nahikoa ez izateagatik, destinoa ezin aukera dezaketen zaintzaileak Nafarroako eskualdeko langileen zerrendan sartuko dira, dagokien hurrenkeran.

Nafarroako eskualdean destinoa duten zaintzaileek dagokien hurrenkeran aukeratzeko ahalgo dituzte gainerako eskualdeetatik mugituko zaintzaileek aukeratu ondoren gelditzen diren lanpostuak.

Destinoa eskualdean duten zaintzaileek, aurre-aurreko ikasturtean zerbitzuan aritu diren ikastetxetik mugitu behar badute beharra desagertu delako edo behar adinako ordurik ez dagoelako, beren lanpostuaren hizkuntza eskakizun bera ez duten lanpostuak hautatzen ahalgo dituzte, borondatez eskatzen duten hizkuntza eskakizuneko eremu guztietako zaintzaileek aukeratu ondoren. Ondorio horietarako, euskarazko lanpostuak aukeratzeko, V1 hizkuntza eskakizuna bete beharko da.

LANPOSTUAK AUKERATZEA

Bai nahitaez mugitzen diren langileek, bai beren borondatez mugitzea eskatzen dutenek, lanpostuak aukeratuko dituzte instantzia baten bidez, non adieraziko baitira aukeratzeko eskaintzen diren lanpostuak.

Instantzia horretan lanpostu guztiak agertuko dira, hau da, lanpostu hutsak eta, mugikortasun prozeduraren ondorioz, lanpostu huts bihur daitezkeenak.

Hala ere, ez dira kontuan hartuko destino berririk lortu ez duen titularra duten lanpostuei buruzko eskaerak.

Instantzian adierazi beharko da aukeratu nahi diren lanpostuen lehentasun-ordena. Era berean, borondatezko mugikortasunaren kasuan, hori adierazi beharko da dagokion laukian.

Telematikoki aurkeztu beharko da nahitaez, informazioa argitaratzen duen fitxaren bidez. Erregistro Orokor Elektronikokoan tramitea gaituko da hura sartzea kudeatzeko.

Nahitaez mugitu arren baten batek ez badu aurkezten lanpostuak aukeratzeko prozesuan parte hartzeko eskabiderik, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak haren eskualdean edo, bertan lanposturik ez badago, beste eskualde batzuetan hutsik gelditzen diren lanpostuetako bat esleituko dio ofizioz.

Lanaldi partzialeko lanpostuak aukeratzen ahalko dira, beheko taulan adierazten diren orduekin bat datozenak. Horrela, funtzionarioen batek haietako bat hautatuz gero, konpromisoa hartuko du lanaldia dagokion heinean laburtzeko eskatzeko.

	Lan ordutegia. Lanaldia							
Murrizketa	2/3	1/2	%45	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8
Lanpostuaren lanaldia (orduak)	12	18	20	22	24	27	31	32

EGUTEGIA

Ekainaren 2a

- Zaintzaile funtzionario guztien eskualdekako behin-behineko zerrenda argitaratzea, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 3ko 1447/2018 Ebazpenean ezarritako ordenari jarraikiz sortutako hurrenkera agertzen duena.

2020ko ekainaren 3a eta 4a

- Aurretik aipatutako ebazpenean ezarritako hautaketa ordena erreklamatzeko epea. Derrigorrezkoa izanen da eskabide telematikoa egitea Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez.

2020ko ekainaren 9a

- Eskualde bakoitzari atxikitako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzea, aukeratzeko jarraitu beharko duten hurrenkeran antolatua, arestian aipaturiko ebazpenean ezarritako ordenaren arabera.
- Parte hartu beharra duten pertsonen zerrenda.
- Eskainitako lanpostuak

2020ko ekainaren 15a, 16a eta 17a

- Nahitaez mugitu behar dutenek eta borondatezko mugikortasuna eskatzen dutenek lanpostuak hautatzeko eskabidea aurkezteko duten epea.

2020ko ekaineko azken astea

- Funtzionarioen mugikortasunari buruzko emaitza argitaratzea.
- Langile kontratadunen ekitaldietarako gelditzen diren lanpostuak.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an.

**ALDI BATERAKO LANGILEAK KUDEATZEKO
ZERBITZUKO ZUZENDARIA**

Isidra Roldán Arróniz